

Poveglia madarikatua erabilgarri dago



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Veneziako urmaela, 1570-1630. Izurri bubonikoak gogor jo zuen zonaldea hainbat hamarkadatan eta urmaeleko 166 uharteetako batzuk, zehazki Venezia eta Lidoren artean da goen Poveglia uhartea, gaixoak koarentenan isolatzeko eta hildakoen gorpuak botatzeko erabili zituzten.

Lehenago ere Poveglia populatua egon zen eta hainbat erabilera izan zituen. Uharteko lehen biztanleak Euganei izeneko protoitaliarrak izan zirela uste da, duela 4.000 urte inguru hedatu baitziren Veneto eskualdean. Idatzizko lehen aipamena K.o. V. mendekoa da: Alariko eta Atilaren inbasioetatik ihesi, eskualdeko hainbat biztanleak Poveglian bilatu zuten babesa. Beste dokumentu batean jasotzen denez, 864. urtean ere 200 bat esklabok irlara ihes egin zuten.

1379an, Genova eta Veneziaren arteko gerra piztu zenean, agintariek Poveglia husteko agindua eman zuten, gotorleku militar bat eraikitzeko; irlan ez zen inor biziko hurrengo bi mendeetan.

Baina ordurako izurri bubonikoaren lehen uholdeak Venezia astindua zuen. 1348an iritsi zen izurria hirira eta biztanleen %50 hil zuen. Veneziarrak konturatu ziren gaixoak eta hildakoak besteengandik bereiztea ezinbestekoa zela. Horregatik, XVI. mende amaierako izurriak iritsi zirenean, berehala erabaki zuten Poveglia giza zabortegi bihurtzea.



POVEGLIAKO ERAIKIN ABANDONATUAK GAUR EGUN.



MARCO SECHI

Inor gutxi itzuli zen onik lehorrera berrogeialdia gaindituta. Milaka eta milaka gorpu erre zituzten bertan.

Veneziarrak ez ziren izan isolamendu koloniak uharteetan antolatzen bakarrak. Gurean ere irtenbide bera bururatu zitzaizen izurrialdi berean; esaterako, 1578an, Lekeition, gaixoak San Nikolas uhartean isolatzea erabaki zuten.

1777an, Veneziako osasun magistratuak, Poveglia kontrolpean hartu eta Ellis uharte moduko bat egin zuen. Veneziako portuan sartu nahiz zuten ontzi guztiek handik pasa behar zuten, gaixotasunen prebentzioa helburu zuen azterketa zorrotz bat gainditzeko. 1790eko hamarkadan bi ontzik ez zuten kontrola pasa eta Poveglia, berriro ere, koarentena gune bihurtu zen, XIX. mende hasieran ospitalea itxi zuten arte.

XX. mendean gaixo mentalak hartzeko egokitu zituzten uharteko eraikinak eta horretarako erabili zituzten 1968a arte. Gaixoei egindako tratamendu eta esperimentu basatiak azaleratu ziren, eta Poveglia izurritsuaren legenda beltza areagotu zuten eroetxeko izugarrikeriek.

Orduz geroztik irla abandonatuta dago, baina bertako mamuak ugaltu egin dira eta munduko toki madarikatu ezagunenetakoa da gaur egun. Ahaleginak egin dituzte toki pribilegiatua dagoen lur zatitxo berrero erabiltzeko, baina ez da lortu proiektu bat bera ere abiaraztea; 2014an enkantean salgai jarri zuten, baina eskaintza bakarra baxuegia izan zen. Koronabirusak ekarriko al du Poveglia berriro erabiltzeko proposamena eta legenda beltza elikatzeko bidea? ●



Balearren estepako arbasoak

Duela 4.000 urte inguru, Ekialdeko Europako estepako abeltzainen uholdeak Iberiar penintsulara iritsi ziren eta aldaketa genetiko eta sozial nabarmenak eragin zituzten. Populazio nahastu berri hura izan zen Brontze Aroan Balear Uharteak jendeztatzen lehena.

Horixe ondorioztatu du *Nature, Ecology and Evolution* aldizkarian argitaratu

berri den nazioarteko ikerlan genetiko batek. Brontze Aroan Mallorcan, Menorcan eta Formenteran bizi izan ziren gizakien hiru genoma aztertuta, Mediterraneo mendebaldeko genoma sekuentzia zaharrenak berregitea lortu dute.

Gainera, Mediterraneoan Brontze Aroan merkataritza nahiz kultura trukeko bide eraginkorra zela berretsi du ikerlanak. ●